

Ehun urte gizarte lanean

Bilboko Udal Aurrezki Kutxa (BUAK) eta Bizkaiko Aurrezki Kutxa (BAK) batu zirenean eratu zen BBK, 1990ean. Jatorriak, ordea, duela 100 urtekoak dira, eta, beraz, aurten ari da bere mendeurrena ospatzen. Historian zehar aldatuz eta garatuz joan da BBKren eginkizun soziala.

DANIEL UDALAITZ



BBK

BUAK 1907an sortu zen, BAK 1920an eta bien bat egitearen ondorio da BBK. Argazkian Bermeoko bulegoa.

“100 URTEKO BIZITZA”, goiburu horixe aukeratu du Bilbao Bizkaia Kutzak, BBK-k, lehen mendeurrena ospatzeko. BUAK eta BAK kutxek bat egin ondoren, 1990ean eratu zen BBK, eta, aurten, hainbat ekitaldi antolatu ditu 100 urteko ibilbidea oroitzeko.

Egun, Euskal Herriko finantza erakunde nagusia da BBK, eta Espainiako Estatuko garrantzitsuenetakoa: 2006ko ekitaldia 251,5 milioi euroko irabazi garbiekin itxi zuen –zergak

ordainduta, alegia–, 2005ean baino %26,7 gehiagorekin.

BBK aurrezki kutxak betidanik izan du borondatea eginkizun sozialerako. Esate baterako, hasierako garai haietan, 1917an, Bilboko estolderia eta garbitoki lanak finantzatu zituen; 2003an, BBK Solidarioa Fundazioa sortu zuen, gizartetik baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonen finantza sisteman sarbidea izan dezaten; eta, berriki, gizarte ekonomiako enpresen-

tzat aurreneko parkea sortzeko asmoa iragarri du. Finantza erakunde bezala, berez, 4.266 milioi euroko balioa duen industria partaidetza zorroa dauka egun BBK-k.

San Anton zubiaren ondoan

Bilboko Udalaren bitartekaritzaren ondotik, 1907ko otsailaren 3an zabaldu zituen ateak BUAKen aurreneko bulegoak, San Anton zubiaren ondoan. Akta historiko haietan jasotzen

Bizkaiko ongizatearen eta garapenaren alde

Batzuetan asmatu, beste batzuetan huts —gizakiak egiten duen oro baita eztabaidagarria—, BBKren mende beteko ibilbidean, Bizkaia-
ren ongizatea eta garapena izan da beste helburuetako bat. Hala, finantza erakunde honek Bizkaiko azpiegitura eta garapen egitasmo handi guztietan zuzenean hartu du parte, bai ekimen estrategiko horiek diruz laguntzen, bai enpresa eta proiektuetan zuzenean parte hartzen. Borondate estrategiko hori agerian geratu zen une jakin eta zailetan, hala nola, 1980ko hamarkadaren amaierako industria krisietan. Behar gorriko momentu horietan, enpresen eta finantzen oreka premiazkoa izan zen.

Betiko kontua da: batzuek eta besteek, denek nahiko lukete beren etxerako BBKrena bezalako diru-iturri ahaltsua, batzuek eta besteek nahiko zuketena konpromiso handiagoa eta diru-iturri oparoagoa bateko eta besteko enpresa edo alorretarako. Baina ezin ukatuko zaio BBKri, batzuetan kale eta bestetan bale, konpromiso estua izan duela beti euskal industriarekin eta haren

etorkizunarekin. Halaber, kultura eta herri kirolak ere lagundu ditu. Eta Bizkaiko obra esanguratsuenek ere, hala ehun urte hauetakoez nola etorkizunekoek, izan dute eta izango dute BBKren babes.

Ikuspegi estrategikotik BBK-k partaidetza zorro garrantzitsua du industrian. Helburuak jakinak dira: industria finantzatzea ez ezik, baita etekinak lortzea ere, ondoren etekin horiek Gizarte Ekintzara eta Bizkaia-
ren ongizatearen eta garapenaren mesederako izango diren bestelako ekimenetara bideratzeko. Hala, 2006ko abenduaren 31n, 4.266 milioi euroko balioa zuen BBKren partaidetza zorroak. Errenta aldakorrekiko zorroak, data berean, sektore hauetan biltzen zituen partaidetzak: Energian (Iberdrola: 9,9; Enagas: 2,7; Petronor: 14; eta Red Eléctrica: 2,9); Komunikazio enpresetan (Euskaltel: 33,1; eta Europistas: 26,9); Finantza sektorean (Banco Guipuzcoano: 14,5; Norbolsa: 50; Biharko: 50); eta bestelakoetan (Ingelectric: 20; Neinor: 49,9; ACB: 10; GAM: 5; eta CAF: 10,8).

Erakundearen izaera soziala ezaguri eta helburu finkoa izan da betidanik. Hori dela eta, etxebizitzaren finantzaketa izan da bere jardueran nagusietako bat sortuz geroztik; joera hori areagotu egin zen etorkinen uholdea iritsi zenean. “Etxe Merkeak” izenekoak diruz laguntzea eta eraikitzea, eta Bizkaiko Etxebizitzak elkarrekin sustatzea, horra bere ekimen nagusietako bi. Ahaztu gabe, noski, bere mailegu sistema eta hipotekazko aurrezki kontua.

Gizarte ekintzaren bilakaera

Historian zehar BBK-k egindako lan sozialaren oinordekotza jaso du gaur egungo Gizarte Ekintzak. Bai eskaintako diru eta baliabide kopuruan, baita lan ildo nagusietan ere. Urteen joanean, baliabideak eta lan ildoak Bizkaiko gizartearen beharrezanetara egokitu dira, baina beti eskaini izan zaie arreta berezia talde baztertuenei. 2006an 59,8 milioi euro bideratu zituzten. Eta, aurtun, 2007an, 75 milioi euro bideratuko dituzte. 1916an, Bilboko estolderia eta garbitokien lanak finantzatu zituen; 1924an, Emakume Langileen Montepio sorostegiak zabaldu zituen; eta 1925ean, Sukarrietako Udalekua. Umeak, emakumeak, ezindak, batez ere giza talde horiek babestu izan ditu BBK-k historian zehar.

Gizarte Ekintzaren bilakaeraren adibide garbia da finantzaketa sozialaren aldeko apustua. Gizarteko talde baztertuenak finantza sistemara biltzen laguntzea, horixe du helburu nagusi apustu horrek. Hor dira BBK Gazte Lanbidean fundazioa, 1998an sortua, Bizkaiko gazteek lana lor dezaten erraztasunak emateko, eta BBK Solidarioa (2003an sortua), bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonen finantza sistemara sarbidea izan dezaten errazteko. Iaz, 3,6 milioi euro eskaini zituen kreditu txikietan. Oraindik orain, gizarte ekonomiko enpresen lehen parkea sortuko duela iragarri du. Pertsona baztertuak edo baztertzeko arriskuan daudenak gizarteratzeko lanean diharduten enpresa eta jarduerak ekonomikoek izango dute lekua parke horretan, baita ingurumen alorrean eta birziklapenean lanean ari direnek ere. ■



Goian, 1907an Bilboko Udalaren eskutik sortutako BUAK aurrezki kutxa San Anton zubiaren ondoan, eta behean, eskaintako gizarte zerbitzuetako bat; udalekuak.

zenez, lehenetsun nagusia hauze zen: aurrezki eta mailegu modu duinean eta lukurreriarik gabe eskaintzea behar gehien zuten klaseen artean. Urte batzuk geroago, 1920an, BAK jaio zen, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta. 1990ean hitzartu zuten bi erakundeek elkarrekin uztartzea, eta halaxe sortu zen BBK.

Ehun urteko ibilbidean erakundeak izandako bilakaera logikoak ez du eragin bere ezaugarri berezkoenetan: gobernu eredu, borondate soziala, lurraldearekiko atxikimendua, bilakaera ekonomiko eta soziala, eta, oroz gain, lan sozial garrantzitsua. Etekinen zati esanguratsua bat zeregin horretara bideratzen du BBK-k, Gizarte Ekintzaren bitartez. Sortu zenez geroztik, duela 100 urte, bai erakunde sortzaileek, bai BBKren bulegoak dituzten herriek, bai langileek Aginte Organoetan parte hartu dute.